

# UZTARRO

giza eta  
gizarte-zientzien  
aldizkaria

1999ko  
harpidetza-saria  
2.800 pta.

4 zenbaki urtean

antropologia

ekonomia

filologia

filosofia

ikasketa klasikoak

kazetaritza

linguistika

pedagogia

psikologia

soziologia

zuzenbidea

UZTARRO aldizkaria jaso nahi dut.

Izen-deiturak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_ Posta kodea \_\_\_\_\_

Probintzia \_\_\_\_\_ Tel. \_\_\_\_\_

**Ordainketa:**

Banku edo Aurrezki-Kutxa \_\_\_\_\_

(20 zenbakiak)

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

Bialdu harpidetza-txartela:

UZTARRO ALDIZKARIA

Udako Euskal Unibertsitatea

Concha Jenerala 25, 4. 48010 BILBO

Tel. (94) 4217145; Fax-zk. (94) 4214679. E-mail: [bulegoa@ueu.org](mailto:bulegoa@ueu.org)





## AKINTZA HEDA

**P**laka Tektonikaren teoriak azaltzen duenez, kontinenteetako masek beren kokapenean aldaketa nabarmenak izan dituzte garai geologikoe-tan zehar. Horrek kontinenteen eta ozeanoen banaketa beti ez dela bera izan esan nahi du. Are gehiago, ozeanoetako hondoak ez du inon 200 milioi urte baino gehiago. Kontinentei dagokienez, historia are eta konplexuagoa da. Hitz gutxitan Lurraren historian kontinente-masak behin eta berriz hautsi eta elkartu egin direla esan dezakegu. Azken elkartzean Pangea deitutako superkontinentea osatu zen. Hau orain 200 milioi urte zatitzen hasi zen eta orduan hasitako aldaketen ondorioz dugu gaur egungo egoera geografikoa. Aldaketen historia luze eta konplexu hau geologoek lanari esker argitu ahal izan da. Geologoek zenbait teknika erabilia (batez ere arroken eta zenbait arlotan arroka-sekuentzien konparazioa egin da), planetaren historian izan diren kontinente-zatien hauste eta elkartzeen etapak berriz eraikitzen ari dira. Ulertzekoa denez eta gainerako zientzia historiko gutzietan gertatzen denez, ikertu nahi diren gertaerak zenbat eta zaharragoak izan, hainbat eta zailagoa izaten da aztertzea. Hori azken etapetan aurreko frogak lausotu egin direlako izaten da. Arkeologian ere antzeko zerbait gertatzen da. Garai historikoak nahikoa zehatz ezagutzen dira, baina Paleolitikoari dagokionez, froga daitzekeen gertaerak baino ezagutzahutsuneak gehiago daude. EHUKo Geodinamika saileko zenbait kide Extremaduran, Badajozko Unibertsitateko lankideekin batera, garatzen ari den proiektuaren bidez, Iberiar penintsularen sorrerarekin zerikusia duten zenbait esparru ikertzen ari dira. Ba-



# Iberiar penintsularen kokapena 600 eta 300 milioi urte bitartean



Mendikate Kadomiarraren birreraiketa.

a) Paleozoikoaren bukaeraren aurretik Ossa Morenak eta ondorioz Extremadurako lurraldeek zuten kokapena.

b) Proterozoikoaren bukaeran eremu kontinentalen kokapena eta plaken hurbilketa eragiten zituzten indarren norabideak.

Ikerketa honetan 550-450 milioi urte bitartean gertatu zenaren xehetasunak argitu nahi dira. Afrikako kostaldean mendikatea eratu ondoren, berau hautsi eta biratu egin zen. Analizatu diren alderdiak, besteak beste, hauek dira: arroka bolkanikoen berezitasunak, bertako sedimentuak eta kontinente-zati txiki horren historiako lehen urratsetan bizitzak izandako eboluzioa. Lortutako datuei esker informazio garrantzitsua izango dugu eta, beste zenbait lurraldeetan agertutako adin honetako arroekin alderatuz, jatorrizko mendikate Kadomiarra birreraiki ahal izango da.



tez ere, Proterozoikoaren bukaeran eta Paleozoikoaren hasieran (600-500 milioi urte) zegoen egoera eta ondorengo 200 milioi urtetan, mendikate Hertziarra eratu arte, gertatutako mugimenduak ikertu nahi dira.

Orain arte Iberiar penintsula Afrikako mendebaldeko muturrean sortu zela jakin ahal izan dugu. Garai honetan Afrikako kontinentearen ertzeko irla-arkuak kontinentearekin talka egiterakoan mendikate Kadomiarra eratu zen. Mendikate Kadomiarraren aztarnak toki gutxitan preserbatu dira, hala nola, Extremadurako lurralde zabaletan zehar, nahiz eta gaur egun oso higatuta egon. Ondoren lurralde hau Afrikako ertzetik be-

reizi egin zen, egun Japoniak Asiarerikiko duen antzeko egitura geologikoa sortuz. Arku bolkanikoaren ostean maila txikiko arro ozeaniko berria eratu zen (Japoniako itsasoa), bertan sedimentu-kopuru izugarriak pilatzen direlarik. Itsaso berriaren zabalkuntzak penintsula Iberikoa ertz kontinentalerikoa eta Extremadurako lurraldea penintsularen errotatzea eragiten du. Ondoren (hau da, orain 450 milioi urte inguruz gero) kontinenteak elkar ganatzen hasi ziren eta Iberiar penintsulan horren hedatuta dagoen orogenia Hertziarra eratu zen.

**X Proiektuaren izenburua:** Harro hegoiberikoak (ZOM eta ZCI) Behe Paleozoikoan izandako sorrera eta eboluzioa. Magma, paleobiologia eta paleogeografiaren erregistroa.

**X Helburua:** Giro sedimentarioen karakterizazioa, magmatismoaren eboluzio geokimiko eta isotopikoaren karakterizazioa eta eredu geodinamiko bat prestatzea.

**X Finantzazioa:** DGCYT

**X Zuzendaria:** Luis Eguiluz Alarcón

**X Ikerketa-taldea:** Rafael Ramón Lluch, Arturo Apraiz Atutxa, Teodoro Palacios Medrano eta Alberto Bandres Martinez.

**X Departamentua:** Geodinamika.

**X Zentroa:** Zientzi Fakultatea